

Prentsa oharra

Nota de prensa



HARRIEN ERRETIRATZE BERRIA ONDARRETAN, UZTAILEKO MAREA BIZIAK APROBETXATUZ

Uztailaren 21ean, igandean, eta 22an, 23an eta 24an, harriak Ondarretako hondartzatik kentzeko prozesua abian jartzea aurreikusi dute, baina itsasoaren baldintzak dira behin betiko egutegia zehazten dutenak.

Carlos Garcia hondartzetako zinegotzi arduradunak adierazi duenez, "asmoa ahalik eta harri gehien kentzea da, eta azken asteetan berriro agertu dira Ondarretan, mareak direla eta. Egun horietan marea biziak daudela aprobetxatuz, hondeamakinarekin eta ura kentzeko makinarekin lan egingo da, eta kamioiak harriz betetzen joango dira Astigarragako Ekotrade lantegian tratatzeko".

Aranzadirekin eta harriak kentzeaz arduratzen den enpresarekin aurreikusitako plangintzaren barruan, hondeamakina eta hiru kamioi 21 gauean hasiko lirateke lanean, eta uztailaren 23tik aurrera, asteartearekin, husteko makina eta beste lau kamioi erabiliko lirateke.